

# Euskal emakumeen ogibideak Behe Erdi Aroan

Janire Castrillo, Aida Castrillo\*

UPV-EHUko irakaslea eta Historian doktorea, \*Lehen Hezkuntzako irakaslea

Lan honetan Erdi Aroko euskal emakumeek lan-munduan izandako paperak aztertzen dira, era bateko edo besteko iturri dokumentalak oinarri hartuta: udal-ordenantza bildumak, kontabilitate-dokumentuak, testamentuak... Oso bestelako emakumeek gauzatu zituzten askotariko zereginen zerrenda agertzen da horietan. Alde batetik, etxearekin lotutako betebeharrak islatzen dira, etxeko lanak eta familia-negozio mota askotan izan zuten parte-hartzea. Bestetik, nekazaritza-esparruko jarduera espezifikoek berri ematen da. Azkenik, hirietan loratzen ari zen ekonomiaren testuinguruan sortu zen ofizio sorta zabala islatzen da. Horrekin denarekin, funtsean, garaiko emakumeen ekarpen laboralaren irakurketa global bat egiten da ondoko orrialdeetan.

GAKO-HITZAK: Emakumeen Historia · Erdi Aroa · Lana · Lan-mundua.

## Women's work in the Late Middle Ages

This paper analyses the position and role of Basque women in the labour market during the Late Middle Ages, making use of different types of documentary sources: municipal ordinances, accounting documentation, wills... In all of them appears a long list of occupations and it is reflected that they were carried out in very diverse ways and by very diverse women. On the one hand, the house-related chores are visualized: domestic work and participation in different types of family businesses. On the other hand, the specific activities carried out in rural areas. And finally, the various trades that emerged in the context of the villain economy are also patent. With all this, basically, a global interpretation of the essential labour contribution of the women of the time is carried out.

KEY WORDS: Women's History · Middle Ages · Work · Labour Market.

## Aurkezpena

Espainiar historiografian Erdi Aroko emakumeen historia garatzen hasi zenetik, lan-munduari buruzko ikerketek garrantzia nabaria izan dute. Horren erakusle dira 80ko hamarkadan egindako jardunaldi eta lanen bildumak (*Varii*, 1984; Segura eta Muñoz, 1988) eta azken hamarkadan argitaratu diren gaiari buruzko sintesi-lan orokorrak ere (Del Val, 2008; García Herrero, 2009; López Beltrán, 2010). Euskal Herrian Erdi Aroko emakumeen lanari buruzko zenbait ekarpen ere baditugu, batzuk Bilbo hirian zentratuta (Del Val, 1997; Rivera, 2014) eta beste batzuk, aldiz, lurralde osoan (Azpiazu, 1995; Ayuso Sánchez, 2009; Castrillo 2013).

Ikerketa horiek agerian utzitako puntu amankomunetako bat emakumeen lanaren parte batek iturri historikoetan duen ikusgaitasun falta da. Izan ere, Erdi Aroan familia izan zen ekoizpen-unitate nagusia eta etxearen baitan antolatzen ziren artisau-tailer edo negozioetan emakumeen ekimenak askotan kutsu domestikoa hartzen zuen; gizonezko familiaburuak zirelako gizartearen aurrean ekoizpen-gune horien titular bakarrak. Orobat, emakumeen lana ikusgai egiteko ez ezik, interpretatzeko orduan ere agertzen diren zailtasunak azpimarratu egin dira, Erdi Aroko ekonomian lan produktibo eta erreproduktiboa desberdintzeko oztopo nabariak baitaude; batez ere, iraganari egungo parametroetatik so egiten baldin bazaio (Segura, 2001).

Alabaina, familiaren markoan egindako lanaz gain, corpus bibliografiko zabal horrek emakumeek autonomoki garatu zituzten ogibideen unibertso zabal bat utzi du agerian, ohiko ofizio femeninoen «zerrenda» ezagutzera emanaz. Askok etxearen horniketarekin eta zerbitzu domestikoarekin lotura estua zuten: elikagaien eta oinarrizko produktuen saltzaileak, okinak, neskameak... Baina paraleloki eginkizun tradizionaletatik kanpo jardun zuten langileak ere agertzen dira, merkataria handiak, esate baterako.

Kontuan hartzeko beste puntu bat emakumeek kolektibo bezala barnebiltzen zuten heterogeneotasuna da. Batetik, estatus xumekoak zeuden, mota guztietako jarduerak egitearen bidez familiaren diru-sarrerak handitu eta aurrera egiten zutenak. Baina bestetik, posizio sozioekonomiko hobean zeuden beste profil bateko emakumeak zeuden, lan-indarraren bidezko parte-hartzea izan beharrean, zenbait ekoizpen-sektoreen kudeaketa, finantzaketa edo merkaturatzean aritu zirenak.

Lan honen helburua euskal emakumeek lan-munduan izan zuten parte-hartzea aztertzea da, XIV. eta batez ere XV. mendeko era bateko edo besteko iturri dokumentalak erabiliz: udal-ordenantzak, kontabilitate-agiriak, testamentuak... Horietatik ateratako datuak hiru ataletan antolatu ditugu: lehenengoan, emakumeek etxearen markoan egiten zuten lana tratatu dugu; bigarrenean, nekazaritza-inguruneetan egiten zituzten lan espezifikoak, eta, hirugarrenean, hiriko ekonomiaren testuinguruan garatu zituzten ofizioak.

## 1. Familia eta etxearen markoan egindako lana

### 1.1. Etxeko lanak

Erdi Aroko emakumeek egin zuten lana modu globalean baloratu nahi bada, ezinbestekoa da etxe-esparruan egin zuten ekarpena bistaratu eta balioestea, familiaren biziraupenerako oinarritzkoa izan zen eta. Izan ere, jarduera sorta zamatsu eta zabala zegoen etxeko lan edo lan domestiko nozioen atzean. Emakumeak iturriraino joaten ziren egunero suilekin ur bila, ortura eta merkatura etxea elikagaiz hornitzeko, janaria prestatu eta soberakinak gordetzen zituzten eta seme-alabak eta etxeko nagusiak zaintzen zituzten. Horrez gain, ortuan aritu eta abereak hazten zituzten, lihoa eta artilea irun eta ehuntzen zuten, arropa josi, erreka edo harraskara eramaten zuten garbitzera...

Egiteko horietako batzuk zeharka agertzen dira iturrietan. Hala, **arroparen garbiketa** 1483an Marina izeneko bilbotar batek aipatzen zuen, epaiketa batean lekuko gisa deklaratzeko ari zela: «*ella estava en su casa a echar çierta ropa en remojo para lo alinpiar, e asy estando entro en su casa un ome ferido de una saeta*»<sup>1</sup>. Halaber, Joan Saez Etxaitarabekoa durangarrak bere etxeko emakumeak arropa garbitzera joan zirela eta sikatzeko baseliza batean eskegi zutela kontatzen zuen 1504an: «*que las mugeres de su casa deste testigo colgaran una ropa a ynxugar en una madera de la dicha yglesia*»<sup>2</sup>.

Arropa garbitzea ez ezik, ehunak ekoiztea ere emakumeen kargu egon zen. **Lihoaren** ekoizpen-prozesu osoa burutzen zuten: erein, hazi, jaso, xehatu eta borra batekin kolpekatuz eraldatu, irun eta ehundu, arropak sortu arte. Egiazki, lihoaren artisautza familiaren arropa-beharrak asetzeko oinarria zen garai hartan. Deban lihoa gauzez lantzea debekatu zuten 1394an, sutea pizteko zekarren arriskua zela-eta, emakumeen eginkizuna zela argiki islatuz: «*que ningunas mugeres non aparejen lino de noche en la villa, fasta tanto que los gallos hayan cantado*»<sup>3</sup>. Gernikan, itxura guztien arabera, udal-borra bat existitzen zen, eta emakumeak lihoa bertan eraldatzera behartuta zeuden: «*ni los puedan mazar sino en el maço dentro de la dicha villa, so la dicha pena, e lo que fizieren de la villa lo quemem luego*»<sup>4</sup>.

Gernikako ordenantzek agerian uzten zuten ere emakume askok **etxe-abereak** zaintzen zituztela, bizilagun bakoitzak, gizon zein emakume, txerri bakarra izan zezan ezartzen zutenean 139. tituluan<sup>5</sup>; baita Lekeitioko ordenantzek ere: «*que ningund nuestro vesyno nin vesyna no tenga mas de un puerco nin en la villa nin en los arrebales*»<sup>6</sup>.

---

1. (Enríquez *et al.*, 1995a: 139). Iturri publikatuena aipua oin-oharretan jasoko dira testuan zehar.

2. (Enríquez *et al.*, 1989a: 638).

3. (Herrero eta Barrena, 2005: 68).

4. (Arízaga *et al.*, 1986: 216).

5. (*Ibidem*).

6. (Enríquez *et al.*, 1992b: 384).

Etxe barruko zereginez gain, emakumeak kanpoko espazioetara joaten ziren lanera: labera, errotara, merkatura, iturri eta errekarra, udal-pisura... Dokumentuetan espaziook feminizatuta agertzen dira, hala nola Lekeitioko 1486ko udal-ordenantzetan, non toki horietan gertatzen ziren gatazkei buruzko lekukotza emateko ahalmena luzatzen zitzairen emakumeei: «*en rason de las contiendas e barajas que acaeçieren en los rios e en los pesos e en los hornos, por quanto non suelen acaecer alli barones para ser testigos, que en estos logares e en cada uno dellos sean testigos a lo menos dos mugeres*»<sup>7</sup>.

**Iturria** zen emakumeen espazio horietako bat, suiletan ura ekartzea haien eguneroko funtzioa baitzen. Beste hiribildu askotan bezala, Bilbon Gabarra izeneko iturri bat zegoen horretarako: «*La Gabarra, en donde toman agua las moças*»<sup>8</sup>. Halaber, etxekoandreak **merkatu lokalera** joaten ziren eta hala irudikatzen ditu herri desberdinetako dokumentazioak, beste erosle edo bitartekari batzuen aurrean produktuak eskuratzeko lehentasuna zutela aditzera emanez. Kontzejuak haiekiko konfiantza zuten, Portugaleteko 1459ko udal-ordenantzek islatzen duten legez, ezkonduetako emakumeek gariaren prezioa ezartzea ahalbidetzen zuten eta: «*si los fieles e alguno dellos llamare algunas mugeres caseras de la dicha villa para se acordar con ellas o se lo mandaren aforar, que la tal o las tales mugeres lo puedan aforar [...], pero que las tales mugeres non sean regateras nin panaderas*»<sup>9</sup>.

**Labea** beste espazio femenino bat zen, ogiaren ekoizpena etxekoandreen eginkizuna zelako. Askok labe partikularrak zituzten etxean, zenbait herritan suteak ekidite aldera argitaratutako araudietan ikusten den moduan, Oñatiko 1477koan<sup>10</sup> eta Eskoriatzako 1522koan<sup>11</sup> kasu. Etxean izan ezean, emakumeek labe pribatuetara joan behar izaten zuten ogia egostera. Ekonomikoki ondo kokatutakoek neskameak bidaltzen zituzten beren ordeztan, 1496ko Bilboko udal-ordenantza batek erakusten duen moduan: «*tenian por uso e costumbre de enviar sus mugeres, moças e criadas a amassar e faser el pan en los ornos de la dicha villa*»<sup>12</sup>.

Ogiaren prozesuari lotutako beste jarduera batzuk ere egiten zituzten emakumeek. 1515eko bizilagun baten kexari esker, Bilboko plazan **garia aletzen** aritzen zirela dakigu, kontzejuaren pisu publikoaren aurrean: «*en la plaça desta villa, donde acostunbran a estar muchos onbres honrrados e mercaderos de la villa, muchas moças e mugeres suelen alynpiar trigo*»<sup>13</sup>. **Udal-pisuarekiko** zuten lotura 1508ko beste neurri batean islatuta agertzen da, emakumeak zereal-zakuak gauez bertara eramaten irudikatzen baititu: «*las mugeres e moças yvan de noche a pesar los çorrnes al peso*»<sup>14</sup>.

**Erreketan** ere emakumezkoen presentzia handia izaten zen, bertan egiten zutelako arropa eta tresna desberdinen garbiketa. Portugaleteko udal-araudiaren

7. (*Ibidem*: 378).

8. (Enríquez *et al.*, 2001: 1.423).

9. (Ciriquiain, 1942: 227).

10. (Ayerbe, 1986: 182-183).

11. (Goicolea, 1994: 362).

12. (Enríquez *et al.*, 1996: 115).

13. (*Ibidem*, 1996: 237).

14. (*Ibidem*, 1996: 166).

arabera, zeregin hori gauzatzeko espazioa mugatua zegoen; izan ere, erroten inguruan ezin zen egin<sup>15</sup>. Gernikako udal-ordenantzetan arropa garbitzeko erabiltzen zen tresneria agertzen da. Batetik, tajaderoak, xabonatutako arropa igurtzeko zirrikitu zizelkatuak zituzten hankadun egur sendoko oholak. Bestetik, suilak, burdin edo letoizko uztaidun egurrezko ontziak. Ur kantitate txikia hartzeko baliagarriak ziren katiluak ere agertzen ziren, eta orobat mitoiak, jantziak igurtzeko artilezko eskularruak<sup>16</sup>.

Garaiko emakumeen etxeko lanen multzoa **ortuan** lan egitearekin, mahastietan aritzearekin, ardoa ekoiztearekin eta **basogintzako** lanekin osa zitekeen. Adibidez, 1448an Mari Ibañez Ustarakoa bilbotarrak zenbait gaztainondo zaintzen zituela esaten zuen: «*ella los fasia alinpiar e los regia lo mejor que podia [...] e los llevaba e esquilmba asi commo cosas suas*»<sup>17</sup>.

## 1.2. Emakumeen parte-hartzea familia-negozioetan

Erdi Aroko **artisans-tailerrek** izaera familiarra zuten eta emakumeek haietan berebiziko garrantzia izan arren, askotan zaila da haien lana dokumentazioan islatuta aurkitzea. Izan ere, orduko gizartearentzat senarra zen negozioaren titular eta jabe bakarra, eta emakumeen ekarpena etxeko lanen luzapen gisa ulertzen zen. Hala ere, erraza da irudikatzea ehuleen emazteak lihoa edo artilea iruten, zapatarienak larrua ondu edo zulatzen... Hala, 1508ko Plentziako udal-ordenantzek harakinen emazteei okela ez mozteko agintzen zietenean, ordura arte horretan aritzen zirela egiaztatzen dute: «*mandaron que ninguna mujer de carnisçero, ni otra muger ni moça, no sea osado de matar nin sangrar ni cortar ninguna de las dichas carnes en las dichas carniçerias de la dicha villa, so pena de dosientos maravedis*»<sup>18</sup>.

Alarguntzean, emakume batzuek familia-negozioen jabe ofizial bilakatzea lortzen zuten, dokumentazioan presentzia irabaziz. Bilboko galdaragileen 1509ko zerrenda batean agertzen zen «*la muger e criados de Juan de Arrygorriaga, calderero, que Dios aya*» dugu adibideetako bat, gainontzeko ofizio bereko kideekin batera produkzioa udal-pisuan pisatzeko agindua jaso zuena<sup>19</sup>. Beste kasu bat Maria Iñiguez Elorriagakoarena da, 1495ean Zumaian jostundegi baten titularra zena<sup>20</sup>.

Sektore bereko langileen interes komunen defentsarako **gremio edo lan-kofradia** gisa egituratu ziren ofizioetan (García Fernández, 1997), emakumeak bigarren mailako kide izan ziren. Eskulan femeninoa gremioaren zereginetikiko modu paraleloan garatzen zen eta ez ziren ofizial edo maisu izendatuak izaten. Elkarrean egitura instituzionalean ere ez zuten parte-hartzen, batzarretan eta barnekarguen izendapenean, alegia. Horrekin batera, elkartasun-mekanismo askotatik baztertuta geratu ziren eta senarra hil ostean alarguna elkarrean laguntzarik gabe

15. «*Que ningunas mujeres nin mozas, nin homes nin mozos, grandes nin pequeños, sean osados de lavar en Pando en el agua que viene al molinar de la entrada de abajo arriba hierbas, nin pies, nin ropa, nin cocina, nin otra cosa*» (Ciriquiain, 1942: 249).

16. (Arizaga *et al.*, 1986: 230).

17. (Enríquez *et al.*, 1995a: 54-55).

18. (Enríquez, 1988: 127-128).

19. (Enríquez *et al.*, 1995b: 150).

20. (Elorza, 2009: 183 eta 187).

geratzen zela ematen du. Adibidez, adina edo gaixotasunen bat zela medio lanik egin ezin zuten kideen mantenurako eratzen zen amankomuneko «kopa»ko dirua jasotzeko eskubideari dagokionez, kofradien araudiek ez zuten alargunei buruzko aipamenik egiten<sup>21</sup>. Bai, ordea, hildako senarrari zegokion urteko bazkidetza-kuota ordainarazteko, Hondarribiko marinelen 1492ko ordenantza batek egiten zuen moduan: «*los dichos avades baián contienente a requerir a la muger o heredero del tal maestro que pague aquel dinero*»<sup>22</sup>.

## 2. Landa-munduko ogibideak

Euskal landa-eremuan zama feudalek presentzia zabala zuten eta, testuinguru horretan, familiaren horniketaz gain, nekazariak tokiko jaun edo andreari errenta ordaintzeari erreparatu behar izaten zioten. Hartara, emakume nekazariak arlo askotan parte hartu zuten eskulan gisa: nekazaritza eta abelazkuntzan, basogintzan, errota eta burdinoletan... Lurren eta instalakuntza produktiboen jabe ziren emakumeek, ordea, kudeaketa eta finantzaketaren alorretik parte hartu zuten nekazaritza-jardueretan.

### 2.1. Nekazariak

**Nekazaritza-zeregin** batzuk emakumeei egotzi zitzaizkien. Arestian aipatutako liho eta kalamua ereitea eta zerealak garantzeaz gain, soroak jorratzea eta galburuak biltzea ditugu horietako batzuk. Hain zuzen, Astigarragako bizilagunek 1382an Murgia leinuko ahaide nagusi Nafarra Martinez Oñazkoarekin eta bere semearekin adostutako enkomienda-kontratuan, lan-zergen artean funtzio horiek aipatzen zirenean feminizatu egiten ziren: «*cada una casa del dicho logar de Astigarraga [...] dos mugeres por escardar e alimpiar el trigo en cada año, al tiempo y a la sazón que cumpliere*»<sup>23</sup>.

**Enfiteusi-kontratu**etan landa-munduan emakumeek egiten zituzten beste eginkizun batzuk agertzen dira. Kontratu horien bidez, jabeek etxe bat eta haren lurak alokatzen zituzten eta maizterrek bertan ekoizten zutenaren erdia emateko konpromisoa hartzen zuten, kasuan-kasuan produktu desberdinen entrega adostuz. Bizkaian **sagarrondoak** izan ziren protagonista: landatu, hazi, kimatu, sagarra jaso eta sagardoa egitea. Orobat mahatsondoak eta ardoak agertzen ziren sarri, baita **abereak** (txerriak, behiak, kapoiak), gazta, egurra, simaurra... ere.

Adibidez, 1382an Joan Zerangakoa eta Maria Perez senar-emazteek Lekeitiotik gertu zegoen Zerangako etxea alokatu zieten Maria Martinez Zerangakoa eta Maria Otxoa Esunetakoa jabeei. Sinatu zuten kontratuan jasotzen zen senar-emazteak Maria Martinezen etxean biziko zirela aurrerantzean, haren mantenuaren kargua hartuz: «*que ayades franco e quito para morar en la dicha casa, pero que le mantengades a la dicha donna Maria Martines luego que vibades en uno con ella en un fogar, ajudandole e seruiendole en la vida*». Urtero txerri bat hazteko

21. (Herrero, 1988: 321).

22. (*Ibidem*: 328).

23. (Arocena, 1955: 328-331).

ardura hartzen zuten: «*del puerco de la cosina [...] que sea para prouision de anbas partes*». Baita sagarrondo berriak landatzekoa ere: «*para poblar estos dichos mançanales que criedes viveros en las tierras de la dicha caseria*», eta jabeek abuztu eta irailero jasotako sagarren erdia emateko. Kontratuaren arabera, senar-emazteek Zerangako mahatsondoak ere zaindu beharko zituzten, simaurra bota eta jorratuz: «*los mantengades bien poblados, estercorando de quatro en quatro annos, e quando e sallando e sus sasones que deuen*». Erdibana eramango zuten beste fruta-arbolek emandakoa ere: «*ygales e çeresales*», «*nogales e castannales*». Azkenik, jabeek lur zati baten entrega egiten zieten maizterrei ortu bat izan zezaten<sup>24</sup>.

Emakume batzuek bakarka sinatu zituzten enfeiteusi-kontratuak. Haien artean Toda Gartzia alarguna dugu, Ziortzako kolegiatari bere Artagoitiako etxea eman ziona 1379an, aske izatetik erdibanako ekoizpen-erregimenera pasatuz, apaizen babesaren truke. Hamabi urteren buruan 150 sagarrondo hazteko konpromisoa hartu zuen, fruituen erdia kolegiatari emanaz eta hamarrena eta gainontzeko ohiko errentak ordainduz<sup>25</sup>.

Emakumeen eginkizun garrantzitsu bat etxeko ekoizpenaren soberakina trukatzeara edo gertuen zegoen **herriko merkatura** saltzera eramatea zen. Lekeition 1485ean hiribildura fruta saltzera hurbiltzen zirenak aipatzen zituzten: «*las mugeres que traen fruta de fuera de la villa*»<sup>26</sup>. Bilboko 1495eko ordenantza batean kanpoaldetik ekartzen zituzten beste produktu askoren aipamena egiten zen: «*cabrito, capones, gallinas, pollos, pollas, huevos, queso, manteca, peras, castañas, figos, durazno, çirueltas, çeras, jujas, gurendas...*»<sup>27</sup>.

Diru-sarrera gehigarriak behar zirenean, arrunta zen **jornalari edo neskame** gisa aritzea. Adibidez, lur eta sagarrondoak simaurrez aberastu zituzten emakumeen aldizkako kontratazioa erregistratu da XVI. mendearen hasierako Arrasaten (Achón, 1995: 213). Modu berean, Lekeitioko kontzejuak Ispasterreko elizatearekin 1518an izandako epaiketa batean, Otoio mendian jornalari aritzen ziren emakume andana agertzen ziren: soroak jorratzen zituzten eta aleburuak jaso, ezkurak bildu eta txerriak gizendu, egurra aizkorekin moztu eta herriraino garraiatu<sup>28</sup>...

Landa-munduko **errotetan** ere emakumeen presentzia nabaria izan zen. Horren isla 1502an Martin Oruetakoa eta Antsa Aulestikoa senar-emazteek Ziortzako abadiaren eskutik alokatu zuten Susaetako errotaren gaineko kontratua dugu<sup>29</sup>. 1526ko Bizkaiko Foru Berriak ere nabarmentzen zuen emakumeen presentzia instalazio horietan: «*todo molinero o molinera que sea en Vizcaya, haya de tener y tenga en su molino pesos para poder pesar los zurrones*»<sup>30</sup>.

Emakumeen esku-hartzea **burdinoletan** egiaztatzen duten dokumentuak ere badaude. Tartean, Segurako 1335eko ordenantza bat: «*los omes e mugeres e*

24. (Enríquez *et al.*, 1993a: 37-39).

25. (Enríquez eta Sarriegi, 1986: 10-14).

26. (Enríquez *et al.*, 1992b: 386).

27. (Enríquez *et al.*, 1996: 85).

28. (Enríquez, 1993b).

29. (Enríquez eta Sarriegi, 1986: 234-235).

30. *Bizkaiko Foru Berria* 35, 8 (Zugaza, 1976).

*las bestias que labraren e visquieren en las dichas ferrerías*»<sup>31</sup>. Norabide bereko datuak ematen dizkigute sutegidun etxeen gaineko alokairu-kontratuek, hala nola Bergarako Maria Ruiz Larizkoa alargunak 1514an eman zuena. Haren bidez, Peru Askarruntzekoa eta Grazia Lisarrikoa senar-emazteei alokatu zien Leizariako San Lorentzoz kokatuta zegoen sutegi bat, urtean 550 marabedi eta bi kapoiko errentaren truke<sup>32</sup>.

## 2.2. Lur-jabeak

Emakume asko instalazio produktiboen jabeak izan ziren: etxeak, lursailak, errotak, burdinolak... Erosi, alokatu, konpondu, lehengaiz eta langilez hornitu, eta produktuen enkargua eta salmenta egin zuten. Batzuek enfitesei-kontratuen bidez ustiatu zituzten beren **lurrak**, Azkoitiko Maria Perez Errekaldekoak egin bezala 1504an. Mokorona etxea errentan eman zion Joan Perez Mokoronakoari 8 urtez, hark etxe hartako behi eta ahuntzak bazka zitzan, langileak kontratuz behar izatekotan eta irabaziak bi aldeen artean erdibituz<sup>33</sup>. Maria Fernandez Lazarragakoa Birgalako andreak ere, 1512an eman zuen testamentuan, alokatzen zituen zenbait lursail eta erletxe aipatzen zituen<sup>34</sup>.

**Errotak** ere kudeatu zituzten emakume askok. Adibidez, Maria Muntsaratzekoak, Lekeitioko probestu Errodrigo Adan lartzakoaren alargunak, 1487an hiribilduko zenbait bizilagun justizia errearen aurrean salatu zituen, bere errotaren azpian beste errota bat eraikitzeke asmoa zutelako<sup>35</sup>. Modu berean, 1496an Elbira santurtziarra Artziniegako errotaren arduradun izendatu zuen bere senar Martin Saez Bañalesekoak, bion semea adin txikikoa zen artean<sup>36</sup>.

**Burdinolen** kudeaketari buruzko aipamen esanguratsuak ere badaude: basoetatik egurra eta ikatza ateratzeari buruzkoak, langileak kontratatzeakoak, kintalak edo produktu landuak enkargatzekoak, komertzializatzeakoak... Azpimarratzekoa da XV. mendean zehar esparru horretan Arrasateko Bañez Artazubiaga leinuko emakumeek izandako parte-hartzea. Antsa Otxoa Gabiolakoak, Maria Beltran Gebarakoak eta Antsa Ozaetakoak, belaunaldi desberdinetan, egurra lortu, minerala kudeatu, langileak kontratatu eta kintalak saldu zituzten, eta burdinoletan mantentze- eta hobekuntza-lanak egin zituzten (Achón, 1995). Oñatiko hainbat emakumek ere meatzariak kontratatu zituzten eta errementariei burdinazko produktuak enkargatu zizkieten (Azpiazu, 1995). Halaber, 1509an Maria Ortiz Zurbarangoa bilbotarrak bi burdinola-mailu egiteko zuhaitzak mozteko baimena jaso zuen kontzejuaren eskutik: «*el regimiento dio licencia a donna Maria Urtys de Çurbaran para que haga cortar en los montes de la villa dos mangos de maço de ferrerya, e dio por ellos dos reales de plata por cada uno*»<sup>37</sup>.

---

31. (Ayerbe, 2006, 12 dok.).

32. (Lema, 2007a: 518-519).

33. AHPG-GPAH 2/0798, fol. 6r<sup>o</sup>-7r<sup>o</sup>.

34. (Pozuelo, 2007: 231-232).

35. (Enríquez *et al.*, 2008: 25-27).

36. (Enríquez *et al.*, 2006: 189).

37. (Enríquez *et al.*, 1995b: 125).



### 3. Emakumeen ofizio independenteak hiritar munduan

Hirietako ekonomiak diru-sarrerak handitzeko beste aukera batzuk eskaintzen zituen eta, artisau-tailer eta negozio mota desberdinez osatutako paisaian, emakumeek makina bat ofizio burutu zituzten modu autonomoan. Gehienak oinarrizko ezagutzekin gara zitezkeen, belaunaldiz belaunaldi transmititutako teknikak aplikatuta. Lanbideok kontzejuaren erregulazio zorrotza izan zuten, ekoizpen-prozesuari, lehengaei eta produktuen kalitate eta prezioei dagokienez, garaiko protekzionismoaren ildotik.

#### 3.1. Ogiaren lanbideak

Ogia Erdi Aroko elikaduraren oinarria zen eta haren ekoizpen-prozesuaren fase gehienetan emakumeak izan ziren protagonista (Del Val, 2002). Hirian garatzen ziren gainontzeko jarduerak bezala, **okintza** zehaztasun handiz erregulatuta zegoen: kontzejuak ematen zuen lehengai, produktuaren ezaugarri eta prezioak zehazten zituen, zergak... Okinek prozesu osoa egiten zuten, alegia, irina erosi, oratu, labera eraman, egosi eta saldu. Merkatuan eskura zezaketen irin kopurua mugatua zuten, auzokideen horniketa bermatze aldera, 1455eko Gernikako ordenantzek aurreikusten zuten legez: «*que no tomen trigo las panaderas fasta que tomen las caseras*»<sup>38</sup>. Beste hiribildu batzuetan gertatu zen bezala, Bilbon ere okinen merkatuan sartzeko eskubidea astelehen, asteazken eta ostiraletara murriztu zen 1482tik aurrera<sup>39</sup>.

Tokian-tokian, lanbidea modu desberdinean antolatu zen. Bilbon salmentagune bakarra merkatu-plaza zen bitartean —«*que ningunas panaderas vezinas de la dicha villa que no vendan ningund pan en sus casas saluo en la plaça*»<sup>40</sup>—, Lekeition etxe partikularretan kokatutako dendetan egiten zen, esaterako, 1421eko epaiketa batean aipatzen zen honetan: «*la tienda de pannes que es de los hijos herederos de Fernand Martines de Ermendurua*»<sup>41</sup>. Kanpezu<sup>42</sup>, Añana<sup>43</sup>, Lagran<sup>44</sup> eta Urduñan<sup>45</sup>, berriz, okintza kontzejuaren abastoa zen. Alegia, auzokide bati edo batzuei esleitzen zitzaien denbora-tarte jakin baterako eta errenta baten truke, eta haiek kontratatutako emakumeek bakarrik egin eta sal zezaketen ogia.

Okinekin loturik **labezainak** zeuden, ogia egosteko labe handiak kudeatzen zituztenak, kasu batzuetan zenbait langile izanez beren kargu. Bilbon, adibidez, asko jota bost enplegatu izan zitzaizkiren, 1512ko udal-dekretu baten arabera<sup>46</sup>. Establezimendu horiek jardueraz eta jendez beteta irudikatzen dituzte iturriek. Ilara luzeak sortu ohi ziren eta, preferentziazko tratuak ekiditeko, Bilboko kontzejuak ogi oro labera heldu eta hiru ordura gehienez egosteko beharra ezarri zuen 1512an<sup>47</sup>.

38. (Arizaga *et al.* 1986: 218).

39. (Enríquez *et al.* 1996: 41 eta 109).

40. (*Ibidem*: 97).

41. (Enríquez *et al.*, 1993a: 66-68).

42. (Pozuelo, 1998: 36).

43. (Pozuelo, 2007: 28-29, 66-67 eta 91-92).

44. (Pozuelo, 1998: 313-318).

45. (Enríquez *et al.*, 1994b: 529-531).

46. (Enríquez *et al.*, 1996: 189-190).

47. (*Ibidem*: 190).

1508ko beste ordenantza bati esker, langile horien funtzioak hurreratzen ziren etxeoandre, neskame eta okin profesionalen ogia egosteaz haratago zabaltzen zirela dakigu, oratzen, orea moldeetan sartzen eta mozketak egiten ere laguntzen baitzuten:

*Las horneras de la dicha villa e sus revalles les ayan de amasar e cortar, tajar e amoldar, e faserles segund que fasta aqui hera acostunbrado, ajudandole las duepnas de los tales panes a los amoldar e faser con su cuerpo [...], fasta lo dar cosido en el fuego<sup>48</sup>.*

Labezainek, gainera, egurrez hornitzen zuten labea, egunsenti edo ilunabarrean buru gainean garraiatuz, 1488ko Bilboko ordenantza baten arabera: «*que ningunas horneras ni otras personas algunas no trayan argoma ni lenna por cabeça alguna para los hornos [...] salbo de entrando sobre ynbierno e berano ho vna hora antes o despues del sol entrado*»<sup>49</sup>. Neurri horren zentzua suteak eragiteko arriskua saihestea zen, geroagoko beste dekretu batzuek bilatu zuten bezala. 1509an, adibidez, kalean hurrengo egunerako behar zuten egurra besterik ez pilatzea agindu zitzaizen labezainei: «*que no tengan echadas las argomas en la calle [...], porque empachan la calle e porque son peligrosas de noches por cavsa de fuego, e non tengan mas de quanto han menester para el dia que trabajaban*»<sup>50</sup>. Itxura guztien arabera, arrisku hori zela medio, 1515ean labeak, sutegiekin batera, Bilboko harresiaz bestaldera aterarazi zituzten<sup>51</sup>.

Okintzarekin lotutako beste lanbide bat **errotariena** dugu, gizon eta emakumeek partekatu zutena, gehienetan kontzejuei, eliz erakundeei edo familia aberatsei alokatutako errotetan. Elorrion emakume bat egon zen errota baten ardurapean, «*las ruedas de Juan Ybannes*»<sup>52</sup>, eta Durangon eginkizun bera izan zuten Teresa eta Mari Perez Bitaiokoak<sup>53</sup>. Errotak hiriaren kanpoaldean kokatuta zeudenez, errotariak herritarrek udal-pisuan utzitako ale-zakuen bila joaten ziren eta irin bihurtuta bueltatzen zituzten. Bilboko 1516ko udal-ordenantza bati jarraiki, garraiolana gauez egiten zuten: «*de noche, en todas las horas que venieren las roderas e los duennos de los çorrones con lumbres*»<sup>54</sup>.

Ohikoak izan ziren errotariak zakuen joan-ekarrian egiten zituzten irin kopuru txikien lapurretak eteteko neurriak. Adibidez, Urduñan errotariak eta haien senideek udal-balantzan ale-zakuak pisatzea galarazi zen 1506an: «*no ha de consentir que ningund rodero ni rodera, ni yjo ni yja, ni otra persona alguna pese en el dicho peso*»<sup>55</sup>. Lekeition 1515ean kontrol-sistema zorrotza ezarri zen. Udal-pisua arduradunak bizilagunek eramandako zakuen pisua koaderno batean apuntatu behar zuen. Errotariak zakua eraman eta bueltan ekarri ostean, zakuen pisua

---

48. (*Ibidem*: 167).

49. (*Ibidem*: 57).

50. (Enríquez *et al.*, 1995b: 138-139).

51. (*Ibidem*: 275).

52. (Enríquez *et al.*, 1997a: 139).

53. (Enríquez, 1989b: 223).

54. (Enríquez *et al.*, 1996: 215).

55. (Enríquez *et al.*, 1994b: 526-529).

jatorrizkoaren berdina ote zen egiaztatzen zen. Kopururen bat falta zela igarriz gero, udal-pisuaren egoitzan errotari bakoitzak zuen irin-kaxoitik falta zen apurra hartu behar zen. Eta amaitzeko, zakuak lokatzarekin ixten ziren jabeen etxeetara behin betiko garraiatuak izateko<sup>56</sup>.

Ekonomikoki indartsuak ziren hiribilduetan zakuen garraioa «**jasotzaile**» izeneko emakume eta gizonen eskutik profesionalizatu zen. Hala izan zen Bilbon, non batzuek zakuak buru gainean garraiatzen zituzten eta beste batzuek animalia edo txalupen bidez. Etxekoandreek kontratatuta egin zuten lan eta astean anega bat maneia zezaketen gehenez. Garraio-lana egiteaz gain, irinaren gaineko zerga ere kobratzen zuten zenbaitek, eta kontzejuaren aurrean ondo aritzeko juramentua egiten zuten, 1509an lau langile berrik egin zuten bezala: «*juraron sobre la cruz en forma Maria Saes de Montyallo, e Toda de Larrea, e Maria Ochoa de Salsedo e Maria Ochoa de Larrea, criada de Martin de Camiruaga, que usaran vien e fielmente en la cojederya de la renta del açoque*»<sup>57</sup>.

Hiribildu askotako udal-pisua emakumeek, bakarrik edo haien senarrekin batera, hartu zuten errentan, Donostiako 1489ko ordenantzek agerian uzten duten moduan: «*ayan de facer e continuar el mesmo que tuviere arrendado el peso de la farina o su muger o persona de gran recado, a contamiento e eleccion de los dichos alcaldes e regidores con juramento que le tomen*»<sup>58</sup>. Portugaleten ere Antsa Pandokoak izan zuen hiribilduko pisuaren ardura urte askotan: «*arrendaron la renteria a Sancha, muger de Juan Saes de Pando, por dos annos por preçio e quantia de quatro mill e seysçientos maravedis de moneda corriente castellana*»<sup>59</sup>.

### 3.2. Saltzaile, dendari eta merkatariak

Elikagaien eta oinarrizko produktuen salmenta lokala errekararien esku egon zen. Kandelak, olioak, ehunak, belarrak, beirazko produktuak eta, batez ere, elikagai mota anitz saltzen zituzten txikizka: gantza, arrautzak, fruta, arraina... Hiribilduaren arabera, haien dendak etxe partikularretan, kalean zeuden teilatuen azpian edo merkatu-plazan kokatu zituzten. Herritarren horniketa bermatzeko oinarrizko lana egiten zuten eta sektorea araudi zorrotz baten markoan garatzen zen. Toki batzuetan, errekararitza abasto publikoa zen, Durango<sup>60</sup> eta Añanan<sup>61</sup> kasu, eta bertan kontzejuak izendatutako errentatzaile batek kontratatzen zituen saltzaileak. Beste herri batzuetan, errekararitza abastoa ez izan arren, langileek kontzejuaren baimena behar zuten jarduteko. Hala zen Portugaleten, non Ines Sierrakoak eta Elbira Balmasedakoak errekarari izateko kontratua egin zuten kontzejuarekin 1513an:

---

56. (Enríquez *et al.*, 1993c: 29-30).

57. (Enríquez *et al.*, 1995b: 34).

58. (Anabitarte, 1985: 73-74).

59. (Hidalgo de Cisneros *et al.*, 1988: 42).

60. (Enríquez, 1989a: 520).

61. (Pozuelo, 2007: 28).

*Sean quantos esta carta vieren como nos, Ynes de la Syerra, muger legitima que soy de Fortunno de Çaballa, e Elvira de Balmaceda, muger de Bartolome de Leon, serrador, bezinas que somos de la villa de Portugalete e regateras della, conocemos e otorgamos que nos obligamos contra bos, el concejo [...], de serbir e probeer la dicha villa e la basteçer de pescado çesial, e sardinas blancas e arençadas, e de arenques, e aseite, e candela, e de todas las otras cosas al dicho ofiçio de la regateria anexa<sup>62</sup>.*

Bilbon ikuskatzaile bat zegoen 1487an produktuen prezio, kalitate, pisu eta neurria kontrolatzeko<sup>63</sup> eta 1493an bi izatera pasatu ziren<sup>64</sup>. Herritarren jaki-horniketa bermatzeko, kontzeju askok errekararien erosketa-aukerak mugatu zituzten. Tolosako 1532ko ordenantzek hala erakusten dute, ez baitzieten merkatuan sartzen uzten eguerdiko ordu biak arte produktu sorta zabala erosteko: «*carnes, e cazas, e pescados salados e frescos, frutas, e gallinas, e pollos, e capones [...], e quesos, e paxa, e huebos, e otras cosas de comer, [...] que nadie tome las cosas sobredichas para revender ni se compren hasta que sean dadas las dos de mediodia*»<sup>65</sup>.

Batzuk produktu zehatz baten salmentan espezializatu egin ziren. Bilboko dokumentazioan, adibidez, **olio-saltzaileak** agertzen dira<sup>66</sup>. Kostako herrietan ohikoa da **arrain-saltzaile eta sardina-saltzaileak** topatzea: Lekeitio, Bermeo, Plentzia, Bilbo, Donostia, Pasaia, Hondarribia... Batzuek salmenta ibiltaria («*trecheria*») egiten zuten, ibilbide luzeetan zehar. Esate baterako, Durangoko 1498ko agiri batek kanpotik zetozen saltzaile ibiltari horiek aipatzen zituen, zenbait zerga ordaintzetik salbuesteko<sup>67</sup>. Eta berdin egin zen 1505ean Sorluzen: «*nin paguen alcabala alguna por el pescado fresco que las mugeres traxieren a cuestras, nin por las sardinas frescas que traen las mujeres a cuestras*»<sup>68</sup>.

**Tabernari eta ostalariek** marko desberdinean saltzen zuten edaria zein janaria, ostatu-zerbitzua eskainiz maiz, eta emakume asko lokal horietako erreferenteak ziren. Hala, Bizkaiko korrejidoreak Lekeitiora egindako bisitaldietan, hainbati egin zien men, besteak beste, «*el meson de Maria Martinez de Çabala*» aipatu zuen 1515ean eta 1519an «*el meson de Maria San Juan, muger de San Juan de Batis*»<sup>69</sup>. Kontzeju askok ostatu horietan egiten ziren salerosketengatik ardura erakutsi zuten. Izan ere, ostalariak trukeen ondoriozko irabazien portzentaje bat jasotzen saiatu ohi ziren. 1509an Diego Martinez Urkijokoaren emaztea, Bilboko ostalaria, bezeroen trukeekin zerikusia izateagatik zigortu zuten:

*Este dicho dia el conçejo, por vna pesquisa que los jurados tomaron en presençia de Martin Saes de Vriçar, escriuano, de commo la muger de Diego Martines de Vrquijo, seyendo ella huespeda, non los podyendo conprar segund la hordenança de la villa, çiertos cannamos de dos huespedes suyos, por ser ella muger e por vsar*

62. (Hidalgo de Cisneros *et al.*, 1988: 135-138).

63. (Enríquez *et al.*, 1996: 51).

64. (*Ibidem*: 105)

65. (Lema *et al.*, 2002: 394).

66. (Enríquez *et al.*, 1996: 204).

67. (Enríquez, 1989a: 520).

68. (Elorza, 2000: 64).

69. (Enríquez *et al.*, 1993c: 43 eta 70).

*con ella pyadosamente, condepnaronla en la terçia parte de la pena contenida en la hordenança que es ochoçientos maravedis*<sup>70</sup>.

**Lentzeria-saltzaile eta artekariak** ehunen merkataritza lokalean espezializatu ziren. Lehenengoek lihozko ehunen salmenta-postuak zituzten Bilboko plazan eta kontzejuak 1497an hirian zehar barreiatutako dendetara joateko agindu zien<sup>71</sup>, 1509an errepikatuz agindu bera: «*por cavsa que estan dentro en la villa asas tiendas basias*»<sup>72</sup>. Lekeition ere dokumentatzen da lanbide hau, «*rebendedoras de pannos*», nahiz eta kasu honetan kontzejuak emandako ehunak bakarrik sal zitzaizkiren<sup>73</sup>. Emakume haietako batzuk egoera ekonomiko onean bizi zirela pentsa daiteke eta diru kopuru handiak maneiatzen zituztela, besteak beste, 1498an Maria Saez Bilelakoa bilbotar lentzeria-saltzaileak urrezko 20 dukateko zorreratik denuntziatu zuelako Marina Isasikoa alarguna<sup>74</sup>. Artekariak, «*corredoras*», Bilboko herritarren eta atzerritarren artean bitartekaritza-lana egiten zuten, ostatuetan egin ohi ziren lihozko ehunen salerosketetan<sup>75</sup>. 1498tik aurrera, jardun aurretik fidantza bat ematera behartu zituen kontzejuak, antza iruzurra egiten baitzuten sarritan: «*muchos e grandes engannos*»<sup>76</sup>.

Kostaldeko herrietan **distanzia handiko merkataritza** aritu ziren emakumeen testigantzak geratu dira. Lekeition, besteen artean, Elbira Larrinagakoak bere iloba Maria Perez Larrinagakoaren ondasunen artean bi karabela zeudela aipatzen zuen 1506an: «*dos carabelas auspoa, la mayor e la menor*»<sup>77</sup>. Halaber, Mari Joan Mezetakoa alargunak, Arteita leinuko kideak, 1510eko bere testamentuan, Sebastian Jauregikoa maisuaren ontziaren zortzigarren partearen jabea zela eta kontabilitate-liburuak zituela baieztatzen zuen. Itsasontzien armatzean eta pleitatzean ere parte hartzen omen zuen, Joan Martinez Hormaegikoaren ontzian aurreko urtean diru kopuru handia inbertitu zuela aipatzen baitzuen. Gainera, burdinaren komertzializazioan zerikusia zuela ematen du, Pedro Olaetxeokoa 500 kintalen balioa zor zion eta<sup>78</sup>. Lekeitioko Toda Likonakoak, Peru Saez Puertokoa itsasontzi-maisuaren alargunak, 1515ean emandako testamentuan antzeko datuak eskaintzen zituen, hainbat kontu eta salgai zuela aipatuz: «*reçibos, cuentas, mercaderias e tratos tengo por escrituras, albalas e conosçimientos padrones e cuentas*»<sup>79</sup>.

Katalina Lozanakoa donostiarraren kasuak, ontzi komertzialen pleitean aritzeaz gain, erabilera militarra izan zutenetan ere emakumeek zeresana izan zutela ematen du aditzera. Izan ere, 1496an haren seme Joan Igeldokoak urte batzuk lehenago Errege-erregina Katolikoen eta Labriteko kondearen alde egiteko Britainiara bidalitako amaren ontzi bati zegokion ordaina erreklamatzeko, 200

70. (Enríquez *et al.*, 1995b: 70).

71. (Enríquez *et al.*, 1996: 125).

72. (Enríquez *et al.*, 1995b: 30-31).

73. (Enríquez *et al.* 1992b 386).

74. VEKA/ARChV, Exekutoria Errealak, 130, 7 kutxa.

75. (Enríquez *et al.*, 1996: 95).

76. (Enríquez *et al.*, 1995b: 134).

77. (Enríquez *et al.* 1993a: 649).

78. (Enríquez *et al.*, 2006: 299).

79. (Enríquez *et al.*, 1993a: 190-194).

koroakoa<sup>80</sup>. Badaude ere emakumeek atzerritarrekin tratu komertzial handiak egin zituztela frogatzen duten dokumentuak. Haien arteko bat, 1520an Maria Argaiangoa zumaiarrak emandako obligazioa dugu, Frantzisko Liengoa merkatari britainiarraren 142 gari anega saltzeko konpromisoa hartuz:

*He recebido de vos, Francisco de Lien, mercader breton, vecino de Murbier que es en Bretaña, çiento e quarenta e dos anegas e media de trigo para vender por vos, el dicho Francisco. Para lo qual me aveys dado comision que pueda vender el dicho trigo para vos a veynte e quatro tarjas la fanega e no mas, vaxo las quales dichas çiento e quarenta e dos hanegas y media de trigo me aveys dado francos e quitos e pagados de todas las alcaualas e derechos y ganbaraje y merma, de la quales dichas hanegas con mi persona y bienes me obligo [...] de os dar cuenta con pago, sy se vendieren con los dineros que las dichas hanegas montaren. [...] E asy por esta razon do e me otorgo manifiestamente por vuestro deudor...<sup>81</sup>.*

### 3.3. Artisauak

Erdi Aroan gehien landu ziren zuntzak artilea, lihoa eta kalamua izan ziren. Erein, hazi eta sorotik biltzen zirenetik, eraldatu, ehundu eta komertzializatzen ziren arte, sortzen ziren ofizioetako batzuetan emakumeak izan ziren nagusi. Protagonismoa argia da lehengaia ardatz eta goruen bidez hari bihurtzen zuten **iruleen** kasuan. Esate baterako, Durangoko oihalgileen gremioarentzat emakumezko irule askok egiten zuten lan, haien etxetik, *verlagssystem* delakoaren markoan<sup>82</sup>. Bilbon emakumezko **ehuleen** presentzia ere egiaztatzen da, nagusi baten aginduetara aritzen zirenak, seguru aski hark emandako lehengai eta tresnei esker<sup>83</sup>. Bizkaiko 1511ko su-kontaktetan pobreak ziren eta alokairuan bizi ziren zenbait emakume ehule erregistratu ziren Portugalete, Durango, Elorrio eta Bilbon<sup>84</sup>. Orobat, **jostunek**, beren errealitate prekarioa zela-eta, gehienek etxean lan egiten zutela ematen du. Ugaoko Mari Ibañez Burdariakoa, «*muger pobre*» gisa erregistratu zen<sup>85</sup>, eta Gemikan Mari Lopez eta beste jostun bat zeuden, azken hori Martin Abad Mendatakoa apaizarekin bizi zena<sup>86</sup>. Ehungintzarekin harremana zuen beste ofizio bat «**lumalariena**» zen. Bilboko 1499ko ordenantza batek inguruko elizateetako bizilagunak zirela ematen du aditzera, hirira hurreratzen zirenak lihozko ehunak erostera, gero lumekin bete, eta kuxinak, burkoak edo koltzak egiteko<sup>87</sup>.

Emakumezkoek menderatu zuten beste sektore bat **kandelagintza** izan zen, argiztapenerako eta hildakoen ofrendak egiteko oinarrizko produktuak ekoiztuz.

80. «*Juan de Igueldo, hijo de Catalina de Lozana, ya difunta, nos fizo relacion desiendo que al tiempo que el conde de Labrit por nuestro mandado fue a Bretaña, afleto una nao [...] de la dicha Catalina de Loçana, su madre, e otra de Juan de Santander, por quatroçientas coronas de oro. E que despues de la muerte de la dicha su madre diz que el commo su heredero requirio al dicho Juan de Santander que le entregase la mitad de las dichas coronas*». Simancaseko Artxibo Orokorra/Archivo General de Simancas (aurrerantzean SAO/AGS), Registro General del Sello (aurrerantzean RGS), 149610, 220.

81. (Elorza, 2009: 349-350).

82. (Labayru, 1903: 725).

83. (Enríquez *et al.*, 1996: 141).

84. (Enríquez *et al.*, 1997a: 26, 148, 165, 286, 308).

85. (Enríquez *et al.*, 1997a: 83).

86. (*Ibidem*: 220 eta 224).

87. (Enríquez *et al.*, 1996: 141).

Bilboko 1496ko udal-ordenantza batek kandelak egiteko jarraitu beharreko prozesua islatzen zuen. Lehenik, argizaria urtu behar zen eta molde batean isuri, jarraian egositako kalamuzko hariak txertatuz eta dena sikatzen utziz:

Que les fechen cuatro filos e non torçidos, e quel cannamo de que se fezieren los dichos pabiles sea çerrascanado. E despues de filado los dichos filos e paviles commo dicho es, que antes que fagan las candelas los cuesan en agua commo madexas, asy pequennos commo grandes<sup>88</sup>.

Kandelagileek udal-lizentziarekin jarduten zuten eta kontzejuak esandako ezaugarri, tamaina eta prezioen arabera kandelak egiten zituzten. Kontrolak ugariak izaten ziren, Zestoako 1483ko ordenantza batek argi uzten duen moduan: «*mandamos que el precio de las libras de las candelas cuando debe aver en cada tiempo sea examinado con los nuestros oficiales*»<sup>89</sup>. Hiribildu askotan kandelak behar bezala ez egiteagatik zigortuak izan ziren emakumeei buruzko zenbait berri daude. Adibidez, 1515ean Bizkaiko korrejidoreak Lekeitio bisitatu zuenean, Toda kandelagileari 200 marabediko isuna ezarri zion kandela txikiegiak edukitzeagatik bere dendan<sup>90</sup>. 1519an berdinean egin zuen Teresa Plazakoarekin, kandelak egitean ur apur bat botatzen baitzuen moldean, bai eta Joan Lopez Jausolokoaren eta Maria Martinezen dendan, eta Toda Puertokoarenean ere<sup>91</sup>.

**Argizarigileek** hileta-eskaintzak egiteko kandelak ekoizten zituzten, sarri zuriz tindatzen zituztenak. XV. mendearen amaieran, hainbat aldiz eskatu zitzaizkien kandela kopuru txikia eramateko hiletetara, hildakoen senideek gehiago eskatu arren<sup>92</sup>. Izan ere, garai hartan komunitatearen aurrean familia-estatusaren erakuskeria egiteko erabili zituzten hileta-elizkizunak, kandela kopuru handia enkargatuz eta beste zenbait elementu baliatuz.

Formakuntza konplexuagoa eskatzen zuten zenbait artisautza-lan ere burutu zituzten emakume batzuek. Lekeitioko iturriek arotzeria, hargintza edo margolaritza-lanetan trebea zen emakume baten berri ematen dute, adibidez. Ez zen haren izena aipatzen, baina 1515ean elizako sakristian, organoan eta kanpaietan egindako **maisutza**-obregatik 270 marabediko ordaina jaso zuen: «*dimos a la muger de Martin de Goyena treynta tarjes por la maestria que de las ovras que hizo, asy en la sacristania commo en los horganos y en las campanas, que montan dozientos e setenta maravedis*»<sup>93</sup>.

### 3.4. Asistentzia medikoa eta espirituala

Erdi Aro amaieran emakumeek medikuntza-esparruan zuten presentzia txikitu bazen ere, unibertsitateen sorreraren eta mediku tituludunen presioaren ondorioz, erditzeen asistentzia haien esku mantendu zen (García Herrero, 1989). **Emaginek** aurretik ofizioan jardundakoengandik jasotzen zituzten ezagutza praktikoak eta

88. (*Ibidem*: 113).

89. (Lema *et al.*, 2002: 220).

90. (Enríquez *et al.*, 1993c: 34).

91. (*Ibidem*: 114-115).

92. (Enríquez *et al.*, 1996: 31, 103, 135).

93. (Enríquez *et al.*, 1993c: 515).

zerbitzua ematen zuten herriko kontzejuaren partetik soldata bat jasotzen zuten. Agurainen 600 marabedikoa izan zen 1507an<sup>94</sup> eta Añanan etxearen mantenua ordaintzeko 265 marabedi eman zituzten urtean, 1506 eta 1527 artean<sup>95</sup>. Soldata txikia bazen ere, artatzen zituztenen dohaintzekin osatzen zutela pentsa daiteke. Bizkaiko 1514ko su-kontaktak emaginek salbuespen fiskalak zituztela egiaztatzen du, kontribuziorik ematen ez zutelako Bilbo, Elorrio, Ermua, Lekeitio, Gerrikaitz eta Plentziako emaginen etxeek<sup>96</sup>.

Plentzia bezalako hiribilduetan argitaratutako «emaginen ordenantzei» esker, lanbidea profesionalizatu eta haren garrantzia agerian geratu zen. Horien arabera, emaginek erditze oro laguntzeko konpromisoa hartu behar zuten kontzejuaren aurrean. Agintariek herrigunean egotera behartzen zituzten, inguru hurbileko bizilagunekin partekatzearekiko jeloskor agertuz, herrian erditzeaz zeuden emakumeentzat zekarren arriskuagatik. Artatzen zuten erditze bakoitzeko kontzejuak 30 marabedi ematen zizkien eta emakumearen sendiak beste 20rekin osatzen zuen soldata. Zerbitzua ematen zuten artean kontzejuak ez zien gehiagorik onartzen utzi, 100 marabediko isunpean:

*Mandaron que la muger que pariere en esta dicha villa que le den a la partera veynt maravedis por su trabajo, e de comer fasta que sea parida. E despues de parida que le de una vez de comer e no mas, ni la dicha partera no tome mas en dinero nin en comer so pena de çient maravedis. E que la partera sea tenuta a donde quiera que la llamaren dentro de la dicha villa asi de noche commo de dia, asy como sea llamada syn otra dilacion alguna, so pena de dosientos maravedis. E asy mismo que la dicha partera no sea osada de yr afuera de la dicha villa a ninguna muger que este para parir en las comarcas, so la dicha pena, porque de lo tal podria venir a las mugeres de la dicha villa. E es el salario treynta maravedis<sup>97</sup>.*

Erizaintzan ere jardun zuten emakumeek, bereziki garaian loratu ziren ospitaleetan gaixoak garbitu, elikatu eta zaintzen zituzten **ospitalerak**. Tokiko kontzejuak ordaintzen zien soldata, partikularren dohaintzekin osatzen zuten. Añanako ospitaleaz arduratzen zen emakumeak, adibidez, 42 marabedi balio zuten sei ogi eta 70 marabediko balioa zuen ardoa jaso zuen 1522an<sup>98</sup>. 1514an Bilboko Santos Juanes ospitalearen zaindari Margarita Saezek soldata handiagoa zuen, 4.000 marabedikoa, hain zuzen<sup>99</sup>.

Zaintza-lanei lotutako beste ofizio bat **inudeena** zen, orduan garrantzia handia zuena bi arrazoi zirela medio (Medina 2010; Illanes, 2013). Batetik, orduan uste zelako edoskitzea ez zela goi-klaseko emakumeentzako eginkizun aproposa. Urduñako 1506ko ordenantzek naturaltasunez adierazten zuten errealitate hori: «*que dan algunas personas sus criaturas a criar a amas*»<sup>100</sup>. Eta Juliana Okarizgoak, Oñatiko merkatari-familia bateko kideak, 1517ko testamentuan bere bi semeak

94. (Díaz De Durana, 1986: 163-168).

95. (Pozuelo, 2007: 22).

96. (Enríquez *et al.*, 1997b).

97. (Enríquez, 1988: 131).

98. (Pozuelo, 2007: 450).

99. (Enríquez *et al.*, 1995b: 310) (Enríquez *et al.*, 2001: 1.325).

100. (Enríquez *et al.*, 1994a: 304).



hazi zituzten inudeentzako dirua ematen zuen: Jurdana, «*la que crío a Nicolas, mi hijo*», eta Teresa, «*mando a Teresa, la que crío a Francisco, mi hijo, quatroçientos e çincoenta maravedis*»<sup>101</sup>.

Beste alde batetik, orduan ez zegoenez edoskitze artifizialerako bitartekorik, profesional horiek ezinbestekoak ziren esne nahikorik ez zuten amen seme-alabentzat eta umezurtzentzat. Adibidez, Bilboko kontzejuak hiriko plazan 1509an abandonatu zuten umea hazteko emakume bat bilatu behar izan zuen, igandero zilarrezko erreal bat emateko konpromisoa hartuz: «*mando el conçejo que de oy día fasta el día de Anno Nuevo primero que byene, que sea dado a la ama que cria la criatura que echaron en la plaça un real de plata por cada domingo por el trabajo del criar*»<sup>102</sup>. Arrasateko udal-kontuetan ere, 1501 eta 1519 urteen artean, 600 edo 700 marabediko makina bat ordainketa islatzen ziren, ume abandonatuak hazteko ardura izan zuten zenbait emakumeren aldekoak<sup>103</sup>.

Laguntza medikoaz aparte, emakumeek arlo espiritualetan ere paper garrantzitsua izan zuten. Erlijioarekin lotutako ofizioak estimu handikoak izan ziren Erdi Aroan, emakume onaren irudiari hertsiki atxikitzen baitzitzaizkion, zekarten bizimodu kasto, jainkotiar eta karitatezkoa zela eta. **Moja** sartzea ekonomikoki ondo kokatutako familietako kideen esku egon zen bakarrik, komentuk botere feudalaren aurpegietako bat zirelako (Coelho, 2006). Esaterako, XV. mendearen erdialdean Barriako monasterio zistertarreko abadesa Mentzia Gebarakoa izan zen, Oñatiko kondeen alaba<sup>104</sup>. Mojen eginkizun nagusia zen komentuko kaperan apaizek kultu-zerbitzuak behar bezala eman zituzten kontrolatzea, batetik: mezak, hiletak, hilobiraketak... Eta bestetik, zentro espiritualok bildutako ondasun handiak kudeatzea: lurak edo instalazio produktiboak salerosi, alokatu, errentak jaso...

**Beata** izatea, berriz, eskuragarriagoa zen eta libreki elkartutako emakume horien komunitateak Euskal Herri osoan loratu ziren. Laguntza espirituala ematen zieten sarri hurbiltzen zitzaizkien herritarrei, eta trukean dohaintzak jasotzen zituzten (Graña, 2013; Garí, 2013). Askok josketa edo ehunketaren bidez lortutako irabaziekin osatzen zituzten diru-sarrerak. Beata-etxean nor sartzen zen kontzejuak erabakitzen zuen, 1509an Bilbokoak Ibeniko beata-etxean libre geratutako plaza bat betetzeko bi hautagaitzaren artean Juliana Markinakoarena hautatu zuenean gertatu bezala<sup>105</sup>. Toki batzuetan beata-taldeek ospitale lokalaren zaintza zuten beren kargu, 1500ean Tolosako Madalenen kasu: «*tiene esta iglesia anexas a Sant Martin donde estan ciertas beatas e a la Madalena, ospital*»<sup>106</sup>. Denboraren poderioz, aske sortutako profesional erlijioso independenteen komunitateak erregela monastiko bati atxiki zitzaizkion, Elizaren egitura-barruan beren egoera formalduz.

**Freila edo serorek** euskal eliza eta basilizak zaintzeko bizi osoko kargua zuten, eta tenplu ondoko etxebizitzetan bizi ohi ziren, gehienetan bakardadean.

---

101. (Zumalde, 1999: 395).

102. (Enríquez *et al.*, 1995b: 64-65).

103. (Herrero *et al.*, 1998: 20, 22, 59 61, 79, 82, 90, 102, 221).

104. (Pozuelo, 2004: 100-103).

105. (Enríquez *et al.*, 1995b: 113-114 eta 119).

106. (Herrero *et al.*, 1998: 142).

Haien eginkizuna ornamentuak zaintzea zen (kalizak, mihiseak, liburuak eta gainontzeko objektu sakratuak), eliza argizatzea, ura garraiatzea, limosnak jasotzea eta erritual batzuetan parte-hartzea, bereziki emakumeen alorrekoetan (Rivera, 2011; Larrañaga, 2016). Serora berria Elizako patronatuak aukeratzen zuen eta apezpikuak baieztatzen zuen izendapena. Sarrera-erritu bat egin ohi zen, Joan Lopez Eskoriatzako eta Teresa Luis Butroikoa patroiek Bilbo inguruko Santo Domingo basilizako serora Maria Ortiz Ugaldekoa izendatu zutenean, 1510ean, egin zuten bezala:

*Tomo por las manos al dicho Juan Lopes de Escoriaça e su muger juntamente con ellos, e a su contentimiento e en su nonbre e vos, a la dicha Maria Ustis de Ugaldeguren, freyla que solia ser de la dicha yglesia e casa e hermita [...]. E a todos tres los metio en la dicha casa e les hiso çerrar las puertas dellas e de la dicha yglesia, puso libre e pacificamente en sennal de posesion. [...] E despues los dichos Juan Lopes e su muger requirieron al dicho Pero Urtis abad que diese las llaves que avian sido tomadas a la dicha Maria Urtis de Ugaldeguren, su freyla, de las caxas adonde estaban los ornamentos e adreços de la dicha yglesia<sup>107</sup>.*

Serora berriaren eta patronatuaren artean kontratu bat sinatu ohi zen, 1511n Marina Fernandez Erripakoa alargunak egin bezala Urduñako Santa Maria elizako patronatuarekin. Bertan zekarren ezkonsariaren berri ematen zen, haren kasuan gurasoek emandako herentzia osoa, eta izango zuen soldata zehazten zen, urtero 100 marabedikoa, segur aski elizari egindako dohaintzen parte batekin osatuko zuena<sup>108</sup>.

Kultuarekin lotutako beste ofizio bat «**difuntera**» izenekoena zen, hiletal-elizkizunak antolatzearen ardura hartzen zutenak, hildakoaren familiak kontratatuta. Beste gauza batzuen artean, ofrendak prestatzen zituzten, Bilboko zenbait udal-ordenantzek islatzen dutenaren arabera. Elizara eraman zitzaieten kandela kopurua mugatu egiten zen haietako batzuetan<sup>109</sup> eta beste batzuetan hilobietan ez esertzeko eskatzen zitzaien:

*Mandaron a todas las defunteras e a las otras personas que traen oblada e candela sobre los difuntos a que ningunas nin algunas personas ayan de traer nin trayan, nin se sientan sobre las dichas fuesas mas personas de las que continuamente suelen e acostumbran andar, so pena de doscientos maravedis<sup>110</sup>.*

«**Difunterekin**» batera «**tajera**» izenekoek lan egiten zuten, elizara emakumeen aulki edo «**tajo**»ak eramaten zituzten meza ospatzen zen bakoitzean. Bilbon 1496tik aurrera ofizio hau debekatzen saiatu ziren autoritateak, emakume bakoitzak bere aulkia eraman zezan xedatu zutenean: «*que non andubiesen tajeras algunas en la iglesia, ni las duepnas no llevasen tajos algunos, saluo cada una ellas mesmas e non por otras personas, e las tales mugeres luego los traxieren a sus casas*»<sup>111</sup>.

---

107. VEKA/ARChV, Exekutoria Errealak, 253, 71 kutxa.

108. (Enríquez *et al.*, 1994b: 646-648).

109. (Enríquez *et al.* 1996: 169).

110. (*Ibidem*: 183).

111. (*Ibidem*: 121-122).

### 3.5. Denetarako neskak: neskame, jornalari eta prostitutak

Zerbitzu domestikoa adin eta jatorri anitzeko emakume kopuru handia enplegatu zuen sektorea zen. Haien eginkizunak oso bestelakoak izan zitezkeen, baita soldata eta nagusiekiko zuten harremana ere. Uraren bila joaten ziren iturriara, labera ogia egostera, sukaldeaz arduratzen ziren, etxeko seme-alaba eta nagusien zaintzaz... Gainera, nagusiak ordezkatzeko zituzten auzoan bete beharreko eginkizunetan, hala nola suteak itzaltzen laguntzeko deiak zeudenean eta auzolanetan. Horretaz gain, etxeko jaun-andreen ofizioan parte hartzen zuten: arraina deskargatzen portuan Lekeitioko marinelen **neskameen** kasuan<sup>112</sup> edo suteagiko hondakinak garbitzen Bilboko errementarienean, 1512an luzatutako agindu batek adierazten duen moduan: «*que ningund rementero nin sus moças nin criadas nin otras personas algunas fuesen osados de echar en la rivera e camino de la dicha villa ninguna escoria, nin çisco, nin estiercol, nin basura alguna, so pena de dosçientos maravedis*»<sup>113</sup>.

Neska askok gazte-gaztetatik uzten zuten gurasoen etxea, etxe berri batean lan egitearen bidez etorkizuneko ezkontzara eramango zituen ezkonsaria lortzeko. Ispasterreko Maria Ruiz Iresegikoak hala egin zuen, Lekeitioko etxe batean zerbitzuak emanez lau urtez, ezkondu aurretik: «*seyendo moça en cabello, enbyome morar en la dicha villa de Lequetyo a soldada, por espacio de quatro annos poco mas o menos*»<sup>114</sup>. Etxeko hierarkian azkenak ziren heinean, ez dira arraroak neskameen aurkako tratu txarren inguruko berriak. Maria Otxoa Plazakoak, hamalau urte inguruko bilbotarrak, bere nagusi Martin Burgoakoa batxilerrak sarri jipoitzen zuela aitortzen zuen 1504an: «*la solia feryr e castigar*»<sup>115</sup>. Ekonomikoki indartsuak ez ziren familia-adarretako kide batzuek ere adar aberatseko senideen etxeetan jarduten zuten neskame. Kasu horietan, iturriek bi aldeen arteko maitasun-zantzuak agerian uzten dituzte. Adibidez, 1515ean Toda Likonakoa lekeitiar alargunak Maria Aldaikoa iloba bere neskamea izan zela aitortzen zuen, «*me ha seruido en muchos tienpos e tanvien al dicho Pero Saez, mi marido*», bai ezkondu aurretik eta ostean, eta ondarearen zati bat ematen zion testamentu bidez<sup>116</sup>.

Sasioan-sasioan lan egiten zuten **jornalarien** berri ere ematen dute Erdi Aroko iturriek, bai **nekazaritzan**, eta bai eraikuntza-arloan. 1455eko Gernikako ordenantzek, adibidez, aldizka mahatsak, sagarrak eta beste frutak biltzen zituzten emakumeak aipatzen zituzten<sup>117</sup> eta txerriak hazten zituztenak ere: «*las destajeras pagando un real para el conçejo puedan criar otros sendos puercos*»<sup>118</sup>. Portugaleteko udal-ordenantzetan mahatsa biltzen zutenak agertzen dira<sup>119</sup> bai eta Santurtzitik arraina buru gainean eramaten zutenak ere: «*lo ayan de traer a Salazar a la dicha villa con moças, non en bestias*»<sup>120</sup>. Gizonezkoek baino soldata txikiagoa jasotzen zuten,

112. García Fernández, 2004: 557-560.

113. (Enríquez *et al.*, 1996: 154).

114. (Enríquez *et al.*, 1993b: 181-182).

115. VEKA/ARChV, Exekutoria Errealak, 50, 27 kutxa.

116. (Enríquez *et al.* 1993a: 190-194).

117. (Arízaga *et al.*, 1986: 231).

118. (*Ibidem*: 226).

119. (Ciriquiain, 1942: 249).

120. (Hidalgo de Cisneros *et al.*, 1988: 117-118).

Plentziako 1508ko udal-ordenantzek erakusten duten bezala, gizona 16 marabedi ematea finkatzen zuten bitartean, emakumeei 8 ematea xedatzen zuten eta:

*Mandaron que ningunos vesinos de la dicha villa non sean osados de dar a los jornaleros hobreros que tomaren para labrar en sus heredades, mas de dies e seys maravedis a cada un hombre, e a la moça o muger que labraren ocho maravedis de jornal, e por dia que no se les de mas de su jantar e merienda e no çena, son pena de çient maravedis*<sup>121</sup>.

**Eraikuntza-alorrean** emakume askok egiten zuten lan, batik bat, kualifikaziorik eskatzen ez zuten zereginak gauzatzeko eskulan merke gisa: ura, karea, harria, lurra, egurra edo beste materialak garraiatzeko, harginei edo zurginei laguntza emateko, etab. Esate baterako, Lekeitioko Santa Maria elizako kaperako teilak berritzeko, apaizek bi gizon eta neskatila edo «moça» bat kontratatu zituzten 1500ean<sup>122</sup>. Herriko kaleak harriztatzeko obra handia egin zenean 1518 eta 1521 artean, emakume anitz kontratatuak izan ziren une desberdinetan. Besteak beste, hamalau emakumeren aldeko ordainketa erregistratu zen udal-kontuetan, bakoitzari 16 marabediko soldata eman zitzaielarik, aldi berean lan egin zuten gizonek 34 eta harginek 50 eskuratu zituzten bitartean<sup>123</sup>. Beraz, agerikoa zen generoaren araberako soldata-desberdintasuna esparru horretan ere.

Bilboko dokumentazioak egoera bera islatzen du. Besteen artean, 1512an Areatzako dikea konpontzeko egin zen obran parte hartu zuten neskatila edo «moça» direlakoek egunean 12 marabedi jaso zituzten, eta, aitzitik, gizon peoiek 40 eta maisu zurginek 45<sup>124</sup>. Urte berean Harategi Zahar kaleko atariko horma bat berritu zen, zeinean harginek 40 eta 50 marabedi eskuratu zituzten, zurginek 40, gizonetzko peoiek 40 eta «moça» direlakoek 12. Azken horien arteko batzuk horma zaharra botatzeaz eta karea oratzeaz arduratu ziren: «*derrocar la pared bieja y amasar la cal*». Beste batzuek errementarien iduriarekin nahastu zuten karea: «*pasar el çisco de los herreros para çerner y mesclar con la cal çernido, todo çernido, para el patin del pretil*». Eta gainontzekoek horma kareztatu zuten eta horma lisatu: «*pasar el sable de Ybeyne en tres dias*»<sup>125</sup>.

Amaitzeko, aipatzekoa da pobrezian eroritako emakume batzuek prostituzioaren mundu marjinallean amaitu zutela. Emakume horiek, Behe Erdi Aroko moralitate zurruna hausten zuten heinean, sozialki erabat mespretxatuak izan ziren. Euskal lurraldeetan, Gaztelako Erresumako beste hainbat zonatan gertatutakoaren kontra, jardunbide hori ez zen ofizialki arautua izan eta, ondorioz, ez ziren prostituzio-etxe munizipalak existitu. Aitzitik, **prostitutak** landa-eremuko ostatuetan zein hirietako aldirietako etxeetan kokatu ziren. Orduko moral bikoitzari jarraiki, prostituzioa legalki jazarri ez bazen ere, tokian tokiko autoritateek bi eskakizun luzatu egin zizkieten emakume horiei: lehenik, haien izaeraren berri publikoki ematea buruko gorrixkak jantziz; eta bigarrenik, emakume «onengandik» urrun mantentzea. Hala, bi arauetako

121. (Enríquez, 1988: 130).

122. (Enríquez *et al.*, 1993c: 210-211).

123. (*Ibidem*: 97).

124. (Enríquez *et al.*, 2001: 1.383-1.390).

125. (*Ibidem*: 1.396-1.398).

bat hautsi zutenean bakarrik izan ziren zigortuak, kasu gehienetan erbesteratzeko neurriekin (Osaba, 1988; Bazán, Vázquez eta Moreno, 2003).

#### 4. Ondorioak

Erdi Aroko euskal emakumeen lan-mundua askotarikoa izan zen, orduko emakumeen profil heterogeneoei jarraiki. Askoren egunerokotasuna etxearekin lotutako zereginen inguruan egituratzen zen. Batetik, etxeko lanak gauzatzen zituzten: etxea ur eta elikagaiz hornitzea, familia zaintzea, baita ortua eta etxe-abereak ere, arropa garbitzea, lihoa lantzea... Etxean ez ezik, dokumentazioan feminizatuta agertzen diren espazioetan ere egiten zituzten lanok: iturrian, merkatuan, labean, errotan, udal-pisuan, errekan... Bestetik, etxeari zuzenean lotutako jarduerak egiteaz gain, familia-negozioan parte hartzen zuten: okela mozten zuten harategietan, senar marinelek ekarritako arrainak saltzen zituzten, etab. Espazio horietan bigarren mailako eskulan gisa jardun zuten, etxeko zereginen luzapentzat ulertzen zelako haien ekarpena, komunitatearen aurrean gizonezko senideak izanik negozioaren titularrak. Horregatik, kofradia edo gremio gisa antolatu ziren sektoreetan ez ziren elkarteko kideztat hartuak izan, eta, ondorioz, ez zuten elkartasun-mekanismoak baliatzerik izan.

Behin oinarrizko lan-karga horiek beteta, emakumeen eginkizunak bide desberdinetatik zabaldu egiten ziren, bizizirene lekuaren arabera. Landa-eremuan nekazaritza-jarduera zehatz batzuk egotzi zitzaizkien, hala nola jorraketa eta aleburuak biltzea. Halaber, gizonekin bat aritu ziren enfiteusi-kontratuetan aurreikusitako zereginetan, batik bat, sagarrondoak hazten eta sagardoa ekoizten. Ez hori bakarrik, errota eta burdinoletan ere presente egon ziren. Bestalde, emakume lur-jabeak lursail eta askotariko instalakuntza produktiboen gaineko kudeaketan aritu ziren, batez ere, alargundu ostean agerian geratzen zelarik haien paperaren garrantzia.

Hirietan jarduera ekonomiko andana loratu ziren eta emakumeek diru-sarrerak handitzeko ofizio desberdinak burutu zituzten. Okintzaren esparruan, okin, labezain, errotari eta «jasotzaile» edo gari-zakuen garraiolari aritu ziren. Komertzioan, oinarrizko produktuen salmenta egin zuten erreka-dariak eta espezializatutako olio-, arrain- eta ehun-saltzaileak egon ziren; eta haiekin batera, kostako herrietan, distantzia luzeko merkataritzan parte hartu zuten merkatariak ere. Artisautzari dagokionez, ehungintza eta kandelagintza ziren emakumezkoen presentzia handiena zuten sektoreak. Alabaina, batzuek artezko maisutza-obra egin zituztelako aipua ere badaude. Medikuntza-alorrean, emaginak, ospitale-zaindariak eta inudeak izan ziren protagonista. Kulturarekin lotutako ogibideak ere garatu zituzten moja, beata eta serorek. Estratu sozial apalenetako kideak neskame aritu ziren maiz, besteen etxeetan zerbitzu mota desberdinak eskainiz, eta jorralari ere, nekazaritza- eta eraikuntza-lanetan batez ere.

Soldatei buruzko datuak agertzen diren kasuetan, emakumeek ofizio bera zuten gizonezkoek baino gutxiago irabazten zutela egiaztatzen da, batzuetan, erdia izateraino. Egiazki, askotan eskulan merke bezala erabiltzen zen emakumeen lan-indarra, kualifikazio-maila eskasa eskatzen zuten zereginetan aritzeko. Lan-

merkatuaren antolaketa globalari dagokionez, soldata txikiagoez haratago doazen genero-desberdintasunak geratzen dira agerian, besteak beste, ofizio femenino gehienen etxeko lanekiko nolabaiteko lotura eta lanbide horiek gremio gisa antolatzeko izan zuten ezintasuna.

### Publikatutako iturriak

- Aguirre, S. (1994): *Lope García de Salazar. El primer historiador de Bizkaia (1399-1476)*, Bizkaiko Aldundia, Bilbo.
- Anabitarte, B. (1985): *Colección de documentos históricos del Archivo Municipal de la M.N. y M. L. Ciudad de San Sebastián. 1200-1813*, Unión Vascongada, Donostia.
- Arízaga, B.; Ríos, M.L. eta Del Val, M.I. (1986): «La villa de Guernica en la Baja Edad Media a través de sus ordenanzas», *Cuadernos de Sección. Historia y Geografía*, 8, 167-234.
- Arocena, I. (1955): «Un caso excepcional en el panorama social de Guipúzcoa: el señorío de Murgia», *BRSVAP*, 11, 3-4, 328-331.
- Ayerbe, M.R. (1986): «Ordenanzas municipales de Oñate. Estudio y transcripción (1470-1478)», *BRSVAP*, 1-2, 141-228.
- , (2006): Documentación medieval del Archivo Municipal de Segura (1450-1521), t. III, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Ciriquiain, M. (1942): *Monografía histórica de la Noble Villa y Puerto de Portugalete*, Bizkaiko Aldundia, Bilbo.
- Díaz de Durana, J.R. (1986): Álava en la Baja Edad Media. Crisis, Recuperación y Transformaciones Socioeconómicas (c. 1250-1525), Arabako Aldundia, Vitoria-Gasteiz.
- Diez de Salazar, L.M. (1983): «Ordenanzas del Cabildo gremial de ferrones del Valle de Marquina de Suso (1442-1500)», *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián. Homenaje a Ignacio Tellechea Idígoras*, t. I, 16-17, 202-230.
- Elorza, J. (2000): *Archivos municipales de Eibar (1409-1520) y de Soraluze/Plasencia de las Armas (1481-1520)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (2009): *Archivo Municipal de Zumaia (1256-1520)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Enríquez, J. (1988): *Colección documental de la villa de Plencia (1299-1516)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Enríquez, J. eta Sarriegui, M.J. (1986): *La Colegiata de Santa María de Cenarruza 1353-1515*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Enríquez, J.; Hidalgo de Cisneros, C.; Lorente, A. eta Martínez, A. (1989a): *Colección Documental del Archivo Municipal de Durango*, t. II, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (1989b): *Colección Documental del Archivo Municipal de Durango*, t. III, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (1991) *Colección documental del Archivo de la Cofradía de Pescadores de la villa de Lequeitio (1325-1520)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (1992a): *Colección Documental del Archivo Municipal de Lequeitio (1325-1474)*, t. I, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (1992b): *Colección Documental del Archivo Municipal de Lequeitio (1474-1495)*, t. II, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (1992c) *Colección Documental del Archivo Municipal de Lequeitio (1514-1520)*, t. IV, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (1993a): *Colección Documental de los Monasterios de Santo Domingo de Lequeitio (1289-1520) y Santa Ana de Elorrio (1480-1520)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

- , (1993b): *Colección Documental del Archivo Municipal de la villa de Lequeitio. Pleito sobre el monte Otoyó*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (1993c): Libro de visitas del corregidor (1508-1521) y Libro de Fábrica de Santa María (1498-1517) de la villa de Lequeitio, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (1994a): *Colección documental del Archivo Municipal de Orduña (1271-1510)*, t. I, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (1994b) *Colección Documental del Archivo Municipal de Orduña (1511-1520)*, de la Junta de Ruazábal y de la Aldea de Belandía, t. II, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (1994c): *Fuentes jurídicas medievales del Señorío de Vizcaya. Fueros de las Encartaciones, de la Merindad de Durango y de las Ferrerías*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (1995a): *Libro de Autos Judiciales de la Alcaldía (1419-1499) y Libro de Acuerdos y Decretos Municipales (1463) de la Villa de Bilbao*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (1995b): *Libro de Acuerdos y Decretos Municipales de la Villa de Bilbao (1509 y 1515)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (1996): *Ordenanzas municipales de Bilbao (1477-1520)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (1997a): *Foguera de las Villas de Vizcaya. 1511*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (1997b): *Foguera de las Villas de Vizcaya. 1514*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Enríquez, J.; Hidalgo de Cisneros, C. eta Martínez, A. (2001): *Colección Documental del Archivo Histórico de Bilbao (1514-1520)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (2006): *Archivo Foral de Bizkaia. Sección Judicial. Documentación Medieval (1284-1520)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Enríquez, J.; Hidalgo de Cisneros, C. eta Sesmero, E. (2008): *Archivo General de Simancas. Registro General de Sello. Vizcaya (1487)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Goicolea, F.J. (1994): «La comunidad rural de Escoriaza en el tránsito de la Edad Media a la Edad Moderna, vista a través de las ordenanzas de 1522», *Sancho el Sabio*, 4, 353-366.
- García Fernández, E. (2004): *Gobernar la ciudad en la Edad Media: oligarquías y elites urbanas en el País Vasco*, Arabako Aldundia, Vitoria-Gasteiz.
- Herrero, V.J. (1988): «Transcripción de las ordenanzas de la Cofradía de Mareantes de San Pedro de Fuenterrabía (1361-1551)», Cuadernos de Sección. Historia y Geografía, 10, 306-334.
- Herrero, V.J.; Achón, J.A. eta Mora, J.C. (1998): *Archivo Municipal de Mondragón. Libro 2. Copia de Privilegios Antiguos (1217-1520)*, t. V, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Herrero, V.J. eta Barrena, E. (2005): *Archivo Municipal de Deba (1181-1520)*, t. I, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Hidalgo de Cisneros, C.; Largacha, E.; Lorente, A. eta Martínez, A.: (1988): *Libro de Decretos y Actas de Portugalete (1480-1516)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Labayru, E.J. (1903): *Historia General del Señorío de Vizcaya*, La Propaganda, Bilbo-Madril.
- Lema, J.A. (2007a): *Colección Documental del Archivo Municipal de Bergara. Fondo Municipal: Subfondo Histórico (1355-1520)*, t. II, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (2007b): *Colección Documental del Archivo Municipal de Bergara. Fondo Iturbe-Eulate (1401-1520)*, t. III, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Lema, J.A.; Fernández De Larrea, J.A.; García, E.; Larrañaga, M.; Munita, J.A.; Díaz De Durana, J.R. (2002): *El triunfo de las élites urbanas guipuzcoanas. Nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la provincia (1412-1539)*, Gipuzkoako Aldundia, Donostia.
- Pozuelo, F. (1998): *Documentación de la cuadrilla de Campezo: Arraia Maeztu, Bernedo, Campezo, Lagrán y Valle de Arana (1256-1515)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

- , (2004): *Documentación municipal de la Cuadrilla de Salvatierra: municipio de San Millán-Donemiliaga (1214-1520)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (2007): *Archivo Municipal de Salinas de Añana-Gesaltza. Libro de Elecciones, acuerdos y cuentas (1506-1531)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia
- Zugaza, L. (1976): *Fuero Nuevo de Vizcaya*, Gráficas Bilbao, Bilbo.
- Zumalde, I. (1999): *Archivo Municipal de Oñati (1494-1520)*, II t., Eusko Ikaskuntza, Donostia.

### Erreferentzia bibliografikoak

- Aranda, E. (2010): «La quema de brujas de 1507. Notas en torno a un enigma histórico», *Huarte de San Juan. Geografía e Historia*, 17, 411-422.
- Achón, J.A. (1995): «A voz de concejo». *Linaje y corporación urbana en la constitución de la Provincia de Guipúzcoa*, Gipuzkoako Aldundia Donostia.
- Azpiazu, J. A. (1995): *Mujeres vascas. Sumisión y poder. La condición femenina en la Alta Edad Moderna*, Aramburu, Bilbo.
- Ayuso, C. (2009): «El mundo laboral femenino en el País Vasco medieval», *Sancho el Sabio*, 30, 115-135.
- Bazán, I.; Vázquez, F. eta Moreno, A. (2003): «Prostitución y control social en el País Vasco. Siglos XIII-XVII», *Sancho el Sabio*, 18, 51-88.
- Castrillo, J. (2013): «La participación de las mujeres en la economía urbana del País Vasco durante la Baja Edad Media», in M.I. Del Val eta J.F. Jiménez (koord.), *Las mujeres en la Edad Media*, SEM, Murtzia, 213-222.
- Coelho, M.F. (2006): «Casadas con Dios. Linajes femeninos y monacato en los siglos XII y XIII», in I. Morant (zuz.), *Historia de las mujeres en España y América Latina*, t. I, Cátedra, Madril, 693-711.
- Del Val, M.I. (1997): «El trabajo de las mujeres en el Bilbao tardomedieval», in D. Juliano (ed.), *Las mujeres vascas en la Historia*, Ipes, Bilbo, 65-92.
- , (2002): «La participación de las mujeres en el proceso de producción del pan en Castilla bajomedieval», in R.M. López Cid (koor.), *Oficios y saberes de mujeres*, Valladolideko Unibertsitatea, 83-110.
- , (2008): «Los espacios del trabajo femenino en la Castilla del siglo XV», *Studia historica*, 26, 63-90.
- García Fernández, E. (1997): «Las cofradías de oficios en el País Vasco durante la Edad Media (1350-1550)», *Studia Historica*, 15, 11-40.
- García Herrero, M.C. (1989): «Administrar el parto y recibir la criatura. Aportación al estudio de la Obstetricia bajomedieval», *Aragón en la Edad Media*, 8, 283-292.
- , (2009): «La contribución de las mujeres a la economía de las familias dedicadas a actividades no agrarias en la Baja Edad Media española», in S. Cavaciocchi (ed.), *La Famiglia nell'economia europea secc. XIII-XVIII*, Florentziako Unibertsitatea, 569-598.
- Garí, B. (2013): «La ciudad de las mujeres: redes de espiritualidad femenina y mundo urbano», in J. Solórzano eta B. Arízaga (ed.), *Ser mujer en la ciudad medieval europea*, IER, Logroño, 349-370.
- Graña Cid, M. M (2013): «Beatas y monjas. Redes femeninas y reforma religiosa en la ciudad bajomedieval», in J. Solórzano eta B. Arízaga (ed.), *Ser mujer en la ciudad medieval europea*, IER, Logroño, 371-388.
- Illanes Zubieta, X. (2013): «Historias entrecruzadas: el periodo de lactancia de niñas y niños abandonados en el mundo femenino de las nodrizas durante la primera mitad del siglo XV», *Anuario de Estudios Medievales*, 43-1, 159-197.



- Larrañaga Arregui, M. (2016): *Serorak Euskal Herrian: Ikuspegiak hastapenetatik desagertutako arte (Antzinate berantiarra-XVIII. mendea)*, UPV-EHU, Vitoria-Gasteiz (doktorego-tesia), <<https://addi.ehu.es/handle/10810/18778>> (Kontsulta: 01/10/19).
- López Beltrán, M<sup>ª</sup>J. (2010): «El trabajo de las mujeres en el mundo urbano medieval», *Melanges de la Casa Velázquez*, 40-2, 39-57.
- Medina Quintana, S. (2010): «Las nodrizas: una maternidad comprada», in R.M. Cid López (koor.), *Maternidades: representaciones y realidad social. Edades Antigua y Media*, Almudayna, Madril, 203-214.
- Osaba, E. (1988): «La actividad reguladora de los concejos y las mujeres consideradas sospechosas: un empleo de la política de control de las costumbres en el siglo XVI», in *La mujer en la historia de Euskal Herria*, IPES, Bilbao, 47-54.
- Rivera Medina, A.M. (2011): «Entre la devoción, el trabajo y el poder: la “freyra” de la iglesia mayor del Señor Santiago de Bilbao en el tránsito del Medievo a la Modernidad», in I. Del Val eta C. Segura (ed.), *La participación de las mujeres en lo político. Mediación, representación y toma de decisiones*, Almudayna, Madril, 115-134.
- , (2014): «Cuerpos de mujer en el mundo laboral bilbaíno bajomedieval y moderno (s. XIV-XVI)», in F. Chacón eta J. Gómez (koor.), *Familias, recursos humanos y vida material*, Murtziako Unibertsitatea, 217-232.
- Segura Graíño, C.; Muñoz Fernández, A. (ed.) (1988): *El trabajo de las mujeres en la Edad Media Hispana*, Almudayna, Madril.
- Segura Graíño, C. (2001): «Actividades remuneradas y no remuneradas de las mujeres en la Edad Media Hispana», in AA.AA., *Rentas, producción y consumo en España en la Baja Edad Media*, Zaragozako Unibertsitatea, 109-120.
- Varii (1984): *Las mujeres en las ciudades medievales*, Madrileko Unibertsitate Autonomoa.

